

noaue

Oinezkoek lehentasuna
izango dute Agerialden

Ekitaldi ugari
36ko Gerraren
80. urteurrenean

Baxurde Krossean
izena emateko aukera
dago oraindik



Amador Granados, Rioko Paralinpiar Jokoetan

Dominarekin itzuli nahi du



Goizak libre?


tobyngana
english SCHOOL

INGELESA ZURE ONDOAN BERTAKO IRAKASLEEKIN

Telefonoz deitu 686 499 775 (Toby), email bat bidali tobyngana@hotmail.com
edo eskolara etorri Alperroburu 2, Usurbil.

Zure esku dago!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

2 etxebizitza gelditzen dira!

**AZKEN 2
ETXEBIZITZAK!**



12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia

E.: contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albisteak iruditan

Masusta zaletuen bilkura



Kapak jantzita, masustaz hornituriko afari gozo askoa dastatu zuten aurreko osti-

ranean Txirristra tabernan. Irantzu kofradekide izendatzeaz gain, kan-

2007az geroztik urtero masustari gorazarre egiteko egin ohi duten bilkura.

Laburrean

Udal zerga-ordenantzako hobekuntzak, onartuak

Maiatzaren 31n hasieraz onartu eta jendaurreko epean inork erreklamaziorik aurkeztu ez duenez, behin betiko onartu ditu Usurbilgo Udalak, 2016rako zerga-ordenantzan proposaturiko hobekuntzak.

307tik 285era jaitsi zen langabetu kopurua uztailean

Azken 3 urteotako daturik baxuena dugu. Kontratazioa aldiz nabarmen igo zen, 438tik 538ra (ia guztiak aldi baterakoak). Emakumezko langabetu gehiago zenbatu zituzten beste behin; 285etik 160.

Katekesi taldeetan izena emateko garaia

Salbatore Parrokiako katekesi taldeetan izena emateko egunak hauek izango dira: Irailaren 20an eta 21ean 18:00etatik 19:30era Parrokiako bulegoetan. Gura-soak bertaratzea komeniko litzateke.

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaqua.eus ||| www.noaqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubidea.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaqua.eus:
Imanol Ubidea, Aritz Lasarte.
Banaketa: Olatz Rezola, Ekhi Arrieta.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.





Imanol Ubeda

Postalak

Uda honetan gertatu omen da. Turista bat Islandian egon da oporretan. Familia bat ezagutu du oporraldian eta, etxera bueltan, islandiar familiari postal bat igortzea erabaki du turista honek.

Esker onez, edota oporminak jota. Auskalo. Kontua da postal bat bidaltzea erabaki duela. Herriaren izena du gogoan. Baina helbidearen arrastorik ez du. Hala ere, postala erosi, eta hasi da idazten. Herrialdearen eta herriaren izenak ipini ditu lehenik. Helbidearen faltan, baserriaren plano bat ma-

rraztu du gutun-azalean. Postariaren lana erraztu asmoz, ohar bi gehitu ditu:

1.- Baserrian bikote bat eta hiru ume bizi dira. Zalditegi bat eta artalde handi bat dute.
2.- Amak herriko supermerkatuan egiten du lan.

Postalari zigilua ipini, eta bidali egin du. Istorio honen berri ez genuen izango, baldin eta postariaren ahalegina hutsaren hurrengo izan baltz. Baina islandiar postariak, turistaren enpeinu bera jarri du. Topatu du baserria, eta bertan utzi du turistak igorritako postala. Bere funtzioa bete du. Inork azaldu ez badu

ere, erraza da familia hartzailearen poza irudikatzea.

Guk ere, postalak igortzeko ohitura dugu. Jaso ere, jasotzen ditugu. Eta ilusioz hartzen ditugu. Bere txikian, gauza handia baita. Une batez bederen, denboraren eta espazioaren muga apurtzen du. Beste herrialde baten oihartzuna dakar, eta lagunaren maitasun keinu batean bilduta iritsi ohi da gainera.

Aurreko batean, postalaren istorio hau buruan nuela, mural ikusgarri batekin egin genuen topo. Donostiako Gladys Enea parkean zen, denon bistan.

“Hur, ur eta lur, amon-tzeko mundua” lemapean, margoak erraustegi bat elikatzen duen kate osoa irudikatzen zuen.

“Gipuzkoa Plazan egoitza duen instituziora bidaltzeko modukoa”, nire artean. Bertan “bizi” direnek orde, ez dakit postala irakurtzeko tarte handirik hartuko luketen. Eta okerragoa dena, irakurrita ere, “jaso dugu” edo antzekorik esateko ahaleginik egingo ote luketen. Kasu honetan, zaila egiten zait postalaren hartzaileen enpatia irudikatzea. Tristeza bada ere, horrela daude gauzak. Tamalez.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Ilazki Gaintza | Maialen Unanue | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai

Joseba Larratxeren komikia

MARKEL OLANO JAUNA,
HONA HEMEN ERRAUSTEGIAREN
KONTRAKO ETA ATEZ ATEKOREN
ALDEKO BESTE ARRAZOI BAT:



Oinezkoek lehentasuna izango dute Agerialden

Asteazken honetan eraikin atariko kale buelta berrituta ikusiko zuten, Udarregi Ikastolako Agerialde eraikinean ikasturte berriko lehen klase eguna izan duten ikasleek. Goiko patiotik beherako bidea baranda berri batekin babestu dute, apartakalekua egokitu. Honez gain, Agerialde atari pareko kale zatiak noranzko bakarria izango du aurrerantzean. Eremu honetan oinezkoek izango dute lehentasuna. Kalea autoen joan etorrirako itxiko dute, eskola egunetan goizetik arratsaldera.

Urbanizazio lan hauetan, euri uren eta ur zikinen sareak bereizi dira, orain arte bateratuak baitzeuden. Inforlur S.L. enpresak zuzendu ditu lanok, eta Construcciones Lasuen S.A.-k gauzatu. Usurbilgo Udalak 85.881,95 euro bideratu ditu obra hauetara.

Agerialde atariko kalea norabide bakarrekoa izango da, Alperroburu 8an bizi direnen-



Klase egunetan, 8:30etik 17:00ak bitartean, kalea autoen joan etorrirako itxi egingo dute.

tzat izan ezik, haiek bi norabidekoa izango baitute. Honez gain, ikastola aurreko kale zatiak, haurren segurtasuna bermatzeko itxita egongo da ibilgailuentzat eskola egunetan, 08:30-17:00 artean. Ordutegi

horretan oinezkoena izango da kalea. Autoa ezingo da bertan aparkatuta utzi, Usurbilgo Udalak ohartarazi duenez. Asteburu eta jai egunetan bai. Horretarako, "kalea zabalik ala itxita izateko, bi pibota mugi-

kor jarri dira Alperroburu kaleko goialdean. Horrez gain, zebra bidea tokiz aldatu eta orain arte zeuden ezinduentzako bi aparkaleku plazak Agerialdeko patioaren alboan kokatu dira", Udaletik berri eman dutenez.

Irazu kaleko lanak martxan

Abuztuan hasi zituzten lanon bidez, "Irazu kaleko irisgarritasun arazoei irtenbidea emango die Udalak eta azpiegiturak berrituko dira. Obrak Mikel Laboa plaza ingurutik hasi dira". Eta zatika, Kale Nagusiraino jaisten den bidea berrituko dute, beti ere kontu handiz. Harri bakoitza altxa eta erdibituko da. Tratatu ostean, berriz zeuden lekuan jarriko dira.

163.260,54 euro bideratuko ditu Udalak lan hauetara eta 4 hilabeteko tartean amaitzea aurreikusten dute. Azaroan alegia. Lanak Inforlur S.L. enpresak zuzendu eta Construcciones Lasuen S.A. enpresak gauzatu ditu. Udalak "barkamenak eskatu nahi ditu aldeztu aurretik, obrek sorraz ditzaketen eragotzenengatik. Zalantzaren bat izanez gero, udaletxera hurbildu".



Lan hauekin, Irazu kaleko irisgarritasun arazoak gaindituko dira.

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: irailak 16. Idatzia ekartzeko azken eguna: irailak 12.

11 zerrenda, boto eskean



Irailaren 15era arteko epea dago posta bidez bozkatu ahal izateko.

Guztira 11 hautagai zerrendetako bat bozkatu ahalko dute gipuzkoarrek, irailaren 25eko Eusko Legebiltzarreko bozketetan.

EAJ-PNV, EH Bildu, PP, PSE-EE (PSOE), Elkarrekin Podemos (Podemos-Ahal Dugu/ Ezker Anitza-Izquierda Unida/Equo), Ciudadanos, Animaliekiko Tratu Txarren Kontrako Alderdi Animalista (PACMA-ATTAKAA), Recortes Cero-Grupo Verde, Ganemos-Irabazi, Partido Familia y Vida (PFyV) eta Libertate Nafarra (Ln) alderdi zein koalizioak aurkeztu dira herrial-

de honetatik datozen hauteskundeetara.

Zozketa bidez hautatuak

Abuztuaren 30ean eginiko osoko bilkuran, Udalak eginiko zozketa bidez hautatu ziren irailaren 25eko bozketa egunez irekiko diren 8 hauteslekue-tako mahaikideak. 72 guztira. Lan egitea egokitu zaizuenoi, egunotan helduko zaizue jakinarazpena.

Posta bidezko bozka

Irailaren 15era arteko epea duzue irailaren 25eko Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan posta bidez bozkatu nahi du-

zuenok, eskaera Correosen bideratzeko. Gogoan izan Usurbilgo Udalaren honako ohar hau: "Posta bulegoan posta bidezko botoa emateko eskaera egiten dutenek, ezin izango dute inolaz ere hauteskunde egunean botoa eman (eskatu baina bidali ez dutenek ere ez).

Bestalde, "hautesle-errola ekainaren 1ean itxi zen, beraz, Usurbilgo hautesle-errola data horretara arte Usurbilen erroldatuta zeudenek osatuko dute. Ekainaren 1az geroztik Usurbilen erroldatutakoek ezin izango dute Usurbilen bozkatu, baizik eta momentu horretan erroldatuta zeuden herrian bozkatu beharko dute".

Herri afaria antolatu du EHBilduk

Euskal Herria Bildu koalizioak Arnaldo Otegi aurkeztu du Gipuzkoako zerrendaburu eta lehendakari gisa. Gipuzkoako Hauteskunde Batzordeak ordea, datozen bozketetara aurkeztea eragotzi dio Otegi, "hautaezina" dela esanez. EHBilduk Gipuzkoako Hauteskunde Batzordeak hartutako erabakiaren aurka helegitea aurkeztu zuen. Atzera bota zuten eta Auzitegi Konstituzionalera jo du. Ostiral gauerdian argituko da Konstituzionalaren epaia.

Frontoian

Kanpaina abiatuko den ostegun gau horretarako hain zuzen, Arnaldori babesa adierazteko herri afaria antolatu du Usurbilgo EHBilduk, iluntzeko 21:00etan frontoian. Kantuz eta musikaz alaituriko herri afaria izango dela iragarri dute. "Arnaldori babesa agertzeko eta kanpainan daukagun ziurgabetasun eta egoera antidemokratiakoaren aurka, Herri Afaria antolatu dugu Usurbilgo frontoian. Herri giro bikainean jaso nahi dugu Auzitegi Konstituzionalaren erabakia eta horretarako zuzenean, streaming bitartez ikusiko dugu Bilboko Areatzako Arnaldoren ekitaldia eta Auzitegi Konstituzionaleko erantzuna. Animatu zaitezte!". Afaritarako sarrerak aurrez eskura ditzakezue Aitzagan, 15 euroren truke. 10 eurotan, ikasle eta langabetuek.

Larunbatean Otegi Usurbilen izango da

Arnaldo Otegi larunbatean Usurbilen izango da. EHBilduko gazteek irailaren 10ean, 19:00etan hasita frontoian antolatu duten hauteskunde kanpainako ekitaldiaren baitan parte hartuko du.

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak, egutegia

- Irailaren 15era arte: posta bidez bozkatzeko eskatzeko epea Correosen.
- Irailak 5-18: hautesleei posta bidez bozkatzeko dokumentazioa bidaliko zaie.
- Irailak 5-21: posta bidez

bozkatzeko aukera.

- Irailak 9-23: hauteskunde kanpaina.
- Irailak 24: hausnarketa eguna.
- Irailak 25: bozketa eguna.
- Urriaren 15a baino lehen:

kargu hautetsiak aldarrikatzea.

- Azaroak 12-22: Eusko Legebiltzar berria osatzeko behin-behineko epea.
- Informazio gehiago: hauteskundeak.eus

Oroimen ekitaldiak, 36ko Gerraren 80. urteurrenean

Francoren tropek Usurbil hartu zuten duela 80 urte. “Horrenbeste ondorio mingarri ekarri zituen jazoera gogoratzeko” Aitzaga Elkarteak ekitaldiak prestatu ditu datorren asterako.

“Laurogei urte joan diren arren, gaur egun oraindik edozein bide bazter, mendi zulo edo baso apartatuan ezkutu lurperatutako hamaika pertsonen gorpuak berreskuratzeke daude”, gogorarazten dute Aitzaga Elkartetik. Lan hauetan ari diren hiru adituren azalpenak entzuteko aukera izango da irailaren 15ean. Eta bi egun beranduago, “irailak 17, beteko dira justu 80 urte “nazionalak” Iruretagoienea koronelaren agindupean, Mendizorrotzetik barrena Usurbilen sartu zirenetik. Egun horretarako, hain zuzen, Zubietamendiko Txaldatxurreko lubakiak ikuskatzeko txangoa” antolatu du Aitzaga Elkarteak.

Eta oroitzapen ekitaldia egingo da gero Askatasuna plazan. “Besteak beste, Joseba Tapiak preseski gerra garaiko gertakizunak aipatuz sortutako kanta batzuk eskainiko ditu eta hitzartzeen artean Xabier Arregi alkatearena ere izango da”, iragarri dutenez.

Duela 10 urteko gunean

Ekitaldia, “duela 10 urte faxisten hatzapar krudela



Ekainean, Islada Ezkutatuak taldeko kideak, herritarrek eta udal ordezkariak Txaldatxurren izan ziren. Irailaren 17an, bertako lubakiak ezagutzeko irteera antolatu dute. Goizeko 9:00etan frontoitik, Aitzaga aurretik abiatuko dira.

jasan zutenen omenez jarri zen plakaren inguruan” egingo da. “Orain hamar urte, 70. urteurrena bete zenean elkarteak antolatu zituen ekimenen artean orduan oraindik bizirik zeuden eta gerra zibilean protagonista izan ziren hiru herritar omendu zituen, Manuel Goenaga, Antonio Pello Aranburu eta Juan Mari Borda. Gogora ekarri zituen, baita ere, ondorio latzak jasan zituzten herritarrek. Haien artean, gerra hasi eta aste gutxietara fusilatutak izan ziren bost lagunak: Joxe Mari Furundarena Begiristain aginagarra, Juan Bautista Aginaga Otegi garaiko EAJko Gazte alorreko arduraduna, Kosme Yaguez Beristain Zubietako maisu zena, Patxi Aizpurua EAJko militantea eta Joxe Galarmendi kalezar-tarra, errepublikarra bera. Era berean, Errepublikaren defentsan frontera joan eta bi-

zia galdu zutenak eta kartze-la, errepresioa edota atzerria pairatu zutenak ere gogoan izango dira”, iragarri dute antolatzaileek.

Hitzorduak

Irailak 15, osteguna

■ 19:00 “Memoria eta aztarnak” hitzaldia Sutegin.

Hizlariak:

-Pako Etxeberria (antropologo eta forentsea, eta Aranzadi elkarteak kidea).

-Lourdes Errazti (arkeologo eta antropologoa, eta Aranzadi elkarteak kidea).

- Joxea Muguruza (Islada Ezkutatuak Elkarteak kidea, besteak beste, Txaldatxur lubakiaren memoria berreskuratzen ari den taldea).

Irailak 17, larunbata

■ 09:00 Txaldatxurreko lubakietara irteera frontoitik, Aitzaga aurretik abiatuta.

■ 13:00 Zigortu eta gudarien

“oroitzapen ekitaldia” Askatasuna plazan.

Antolatzailea: Aitzaga Elkar-tea.

Herriko tabernen auzia: “Oraindik nola gauzatuko den ikusteke dago”

“Aitzagak Madrilgo epaitegiek duela urtebete hartutako ebazpena ozen salatzen du, bere elkartearen eta beste 100 bat elkarteren lapurretara legala baino ez zilegia bideratzen baitu, oraindik nola gauzatuko den ikusteke dagoen arren”, gogorarazi dute Aitzaga Elkartetik.



Bizipoza jaita, irailaren 25ean

Euskara, auzolana, elkartasuna eta bizipoza, baloreon gainean eraikitako jaialdia izango dugu irailaren 25ean Usurbilen, Irrien Lagunen eskutik eta elkarte mordo baten parte hartzearekin. Ostegun honetan aurkeztuko dute egitaraua antolatzaileek.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO


ARRANDEGIA PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Irailak 36-60
INQUIETUD
JANTZI-DENDA

Nagusia 49, LASARTE-ORIA

Granadatik ere, guri begira

Euskal Herriko txoko desberdinetatik, Kataluniatik, Bristoletik... Eta orain Granadatik ere bisitan izan ditugu Usurbilen. Udale-ri honetako hondakinen kudeaketa eredua ezagutu nahi zuten. Gurean dugun sistemaz interesatuak daude. Abuztuaren 30ean egin zieten harrera Usurbilgo Udalean.

“Granadako (Espainia) Dehesas Viejas herritik bi ordezkari politiko hurbildu ziren Usurbilera, hondakinen bilketa sistema ezagutzera. Dehesas Viejas 1.000 biztanle dituen herri bat



Abuztuaren 30ean, Dehesa Vieja herriko bi ordezkari izan ziren Usurbilen.

da, eta Usurbilen egiten den hondakinen kudeaketan interesatuta daudela eta, lehen pertsona ezagutzera hurbildu dira”, berri eman du Udalak, usurbil.eus atariaren bidez.

Igandean, giza-katea Kontxan

Errausketaren Aurkako Koordinadora, Eguzki, Ekologistak Martxan, Greenpeace, CCOO, ESK, STEILAS, EHBildu, Ezker Anitza, Alternatiba, Podemos, Equo, Irabazi eta Duintasuna, eragile guztiok Kontxako Banderaren bigarren jardunaldi egunerako erraustegiaren aurka mobilizatzeko deia egin dute.

Erraustegiaren aurkako giza-katea antolatu dute irailaren 11rako, goizeko 11:30ean, Donostiako Alderdi Ederretik Kontxako hondartzara jaisteko dagoen arrapalan, “Osasunaren alde, errausketarik ez, ez Zubietan, ez inon. Alternatiba: hondakinen murrizketa, berrerabiltzea, birziklatzea, konpostatzea eta... erreusa egonkortzea” aldarripean.

Gipuzkoarrei mobilizatzeko joatea eskatzen diete, “giza-katean parte har dezaten, jendeari pankartak, kartelak, kamisetak... eramateko eskatuz, hondartza aldarrikapenez eta kolorez bete dezagun”.



Igandean, eguerdiko 11:30ean, Alderdi Ederretik Kontxako hondartzara jaisteko arrapalan batuko dira. Bertara joateko autobusa antolatu dute Zubietan. 10:45an, Zubietako geltokitik abiatuko dira.

Proiektu zentzugabekoa eta kaltegarria

Zubietan eraiki nahi duten egitasmoak osasun eta ingurumenarentzat kaltegarria dela nabarmentzen dute beste behin, “munduko parte desberdinetan egindako ikerketek” dioten moduan. Etorkizunean sor daitekeen erreus kopurua aintzakotzat hartuta zentzugabea, proiektua esku pribatueta uzteagatik erreusaren tratamendua garestitutako duena, eta ahaztu behar ez dena, “erraustegiak airea kutsatzeaz gain, zaborteak behar ditu, bertatik irteten diren zepak (sartutakoaren %25a) eta errauts toxikoak (%5a) tratatu eta gordetzeko”.

Irtenbide adostu baten alde

Hondakinekin dugun arazoa konpontzeko, Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari erraustegia alboratu, parte-hartze prozesu bat abiatu eta irtenbide adostu bat bilatzea eskatzen diete. Erraustegiaren alde egiten ari direnek ildo hauekin bat egin ezean, ohartarazten dutenez, “Gipuzkoaren parte handia aurka izango duzue errausketa-zaleek zuen bidean eta edozein aldaketa politikok hankaz gora jarriko du proiektua, kasu guztietan diru publikoaren xahuketa izugarria gertatuko delarik”.

Erraustegiaren aurkako agenda

Irailak 11, igandea

■ 11:30 “Gipuzkoa bizirik, osasunaren alde! Errausketarik ez!” erraustegiaren aurkako giza-katea Donostiako Kontxa hondartzan. Biltzeko hitzordua; Alderdi Ederren, hondartzara jaisteko tokian. Deitzaileak: eragile talde bat.

Irailak 30, urriak 1,2

■ Erraustegiari buruzko herri galdeketa Usurbilen. Bolondresak beharko dira. Antolatzaileekin harremanetan jartzeko: erraustegiaerabakia@gmail.com
Twitter: @U2erabaki
erraustegiaerabakia.wordpress.com

Urrirako aurreikusia dagoena:

■ GuraSOsek deituriko mobilizazio handi bat.
■ Kirol jaialdia.

Usurbilen ere, Gipuzkoa Zutik ekimenarekin bat

Erraustegiaren eta eliteen aurka eta bizitzaren alde Gipuzkoa Zutik mugimendarekin batera bailaran osaturiko Buruntzaldea Zutikek, zenbait asanblada eta ekimen burutu ditu uda honetan. Horietako bileretako bat, uztailaren 19koa Usurbilen egin zuen, Askatasuna plazan.



Uztailaren 19an batzarra egin zuten Askatasuna plazan.

Hondakinak tratatzeko eredu propiorantz

Ikusirik, “Usurbilek ez daukala toki egokirik gaur egungo Gipuzkoako hondakinen arkitektura instituzionalean, eta herritarren aurrean dugun arduragatik eta zor diegun begiruneagatik”, hondakinak tratatzeko eredu alternatibo bat lantzen hasi nahi du Udalak. Gutxienik, bestelako tratamendu eredu bat abiatzeko dauden aukerak aztertu nahi ditu. Gaia uztaila amaieran egin zen osoko bilkurara eraman zuen udal gobernu taldeak. Gehiengo osoz onartu zen proposamena, EH-Bilduren aldeko babesarekin. PSE eta EAJ abstenitu ziren. Hartutako erabakiaren berri, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta San Marko Mankomunitateari ematekoa zen Udala.

Uztaila amaierako osoko bilkuran onartu ostean, “Usurbilgo hondakinen tratamendua bideratzeko azterketa integrala, aspektu sozial, juridiko, tekniko eta ekonomikoa landuko dituen espedienteari hasiera” ematekoa zen Udala. Hau da,



Hondakinak tratatzeko eredu alternatibo bat lantzen hasi nahi du Udalak.

USURBILGO UDALA

“Mankomunitateak jasotzen ez ditugun zerbitzuak ere ordainarazten dizkigu”

Udala kide duen San Marko Mankomunitateak “aurreikus-tuten dituen kudeaketa sistemetako baten bidez (zuzeneko edo zeharkako) ordezkatzeko aukera eta bideak aztertuko ditu”. Udaletik gogorarazten dutenez, “Usurbilek eredu jasagarri baten aldeko apustua

egin du eta, zero zabor bidea- rekin konpromisoa hartuta, urrats sendoak egiten ari da norabide horretan. Baina, San Marko Mankomunitatearen kide baikara, behin eta berriz ikusi dugu Mankomunitateak ez diola gure ereduari erantzuten, eta, are okerragoa dena, jasotzen ez ditugun zerbitzuak ere ordainarazten dizkigula”.

Moratoria eskaera, eredu propioa lantzeko

Hondakinak tratatzeko eredu propioa lantzeko azterketa-ba-

tzorde bat eratuko du Udalak, “hondakinen tratamenduaren inguruko alderdi sozial, juridiko, tekniko eta finantzarioari buruzko azterketa egin dezan eta memoria bat presta dezan, bi hilabeteko epean, gehienez ere”. Batzordea zinegotzi eta teknikariek osatuko dute.

Abagune berri bat

Hondakinak tratatzeko bestelako eredu alternatibo bat martxan jartzeko dauden aukerak aztertzekoa denez, Zubietan eraiki nahi den erraustegiaren esleitze prozesuaren moratoria indarrean jartzea eskatzen du Udalak. Une erabakigarri honetan hain zuzen; 2002-2016 urte arterako Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra amaierara heldu eta Foru Aldundia, 2017-2030 urte arterako plana diseinatzekoa den honetan. “Epemuga horrek aukera bat dakar: gipuzkoarrok abagune berri bat dugu hondakinen politika lantzeko eta adosteko”, Udaletik nabarmentzen dutenez.

GHK: “Behin betiko esleipena azaroan egingo da”

Usurbilgo Udalak aztertu nahi duen hondakinak kudeatzeko ereduak, hondakinak erraustean oinarritzen duen Foru Aldundiaren eredu ordezkatu nahi du.

“Erraustegia eraikitze egi-tasmoari bere horretan eus-ten dio gaur egungo Foru Al-

dundiaren gobernu-taldeak, premiazko prozedurak azken muturreraino behartuta”, Udaletik diotenez. Horren erakusgarri, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak uztailaren 28an egin zuen batzarra. Erraustegiaren “diseinu, eraikitze, finantzaketa, eragiketa eta mantenua, obra publikoa emateko kontratu baten bitar-

tez, esleitzeko kontratuaren espedientearen azterketa eta onarpenari” baiezkota eman zion GHK-k. Erraustegia eraiki eta kudeatzeko pleguak onartu zituen, Diputazioko egoitzan egindako batzarrean. Hartzera zihoazen erabakiaren aurka, atarian, Gipuzkoa plazan, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak deituta,

hainbat herritar mobilizatu ziren maindire txuriek.

Ordutik, 60 eguneko epea dute enpresa interesdunek, GHK-k berri eman duenez, “eskaintzak aurkezteko, eta, jarraian, behin betiko esleipena egingo da azaroan, obrak hasi daitezen, aurreikusten den bezala, datorren urteko urtarrean”.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

Patxi
PATRIKHA
IATETXEA

· bazkariak EGUNERO
· afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

Euskalduntzea, erabilgarri

Ikasturte honi begira, bada nobedaderik euskaltegien eskaintzan. “Berrikuntza da A1 eta A2 titulazioak sartu dituztela”, adierazi digu Jokin Nazabal Hernaniko Udal Euskaltegiko kideak. Orain arte, B1, B2, C1 eta C2 titulazioa eskura zitekeen eskualdeko euskaltegietan.

Berrikuntza garrantzitsua, asko baitira euskaltegira titulu bila doazenak. Lan munduak exijitzen dizkien hizkuntz eskakizunak betetze aldera, euskaltegira jotzen dutenek ikasle multzo garrantzitsua osatzen dute. “Askotaz titularen bila, lan munduratzeko erraztuko dielakoan. Horiek titulua eskuratzeko presa izaten dute”, Nazabalen esanetan. Azken urteotan, 16-25 urte arteko zenbait ikasle ere gerturatu zaizkie. Euskaraz hazi eta hezitakoak. “Hezkuntzak emandako B1 badiate, baina lanerako agian B2 behar dute”, dio Jokinek. Badiara honez gain, familian euskaraz aritu ahal izateko euskaltegian matrikulatzen direnak ere.

Herriko bizitzan murgiltzeko zubia

Eskura dituzten erraztasun guztiak eskaintzen dituzte eskualdeko euskaltegiek. Maltzutasun handia taldeak osatzerakoan, kideen ordutegi eta maila aintzakotzat hartzen baitute. Ikasle berrien kasuan, duten maila ezagutu eta talde egokian kokatzeko, proba modukoa egiten zaie ikasturtea abiatu baino lehen. Hain zehatza izan gabe, etxetik ere aukera badago jakiteko zein euskara maila dugun buruntzaldea.eus webgunean.

Klaseetan, taldean elkarrengin handia izaten da, ondo pasatzea da helburua, ikasiz gozatzea. Eta pizgarri moduan, ikasgelako jardunaz gain, ekimen osagarriak ere antolatzen dituzte. “Animatu dadila jendea, klaseak ahalik eta atseginenak izaten ahalegintzen gara. Honez gain, beti izaten dira



Eskura dituzten erraztasun guztiak eskaintzen dituzte eskualdeko euskaltegiek.

JOKIN NAZABAL

“Inguruan euskaldun piloa izanda, haiekin harremanetan jartzeko euskara jakiteak plus bat eman eta harremana errazten du. Euskalduna erosoago sentiarazten du eta bera ere integratuagoa sentituko da”

urtean zehar, tailerrak, gonbidatuak, euskaraz hitz egiteko Mintzalagun edo Solaskide egitasmoak...”, berri eman digu Lasarte-Usurbilgo AEK-ko kide Olatz Urdanpilletak. Eskaintza honi gainera, datorren martxoan ospatuko den 20. Korrika erantsi behar. “Jendea prestatzen joan dadila”, iragarri digu Olatzek.

Hernaniko Udal Euskaltegian ere euskara erabiltzen laguntzeko “zubiak eskaintzen ditu; Mintzodromoa antolatzen dugu, astean behin dinamizatzaile batekin bi orduko solasaldiak kafetegian nahi duen ororentzat”.

Euskaltegitik kanpo. Ikasgelak trebatzeko guneak bai baitira, baina euskaltegietan eginiko lana bezain garrantzitsua edo garrantzitsugoa da AEK-tik nabarmen dutenez, euskara “kalean erabiltzea. Maiz erreplikatzeko diegu ikasleei, euskaltegitik kanpo egin dezatela ahal dutena; ondokoa euskalduna izan eta euskaraz agurtzen jaki-

nez gero agurtzea; erosketa txiki bat euskaraz egin badezakete, egitea; euskarazko musika eta telebista entzutea... Euskara nork bere zaletasunekin lotzea”. Hartara motibagarriagoa zaie bati baino gehiagori euskara ikasi eta erabiltzen hasteko pausoa ematea.

Urrats hori ematea ez baita sarritan erraza izaten. “Hanka sartzeko beldurra izaten da, gaizki ulertuko ote nauten”, Urdanpilletaren esanetan. Baina arestian aipaturiko saiakera txiki-handiak egiten hasi ostean, “oso motibatua egoten dira eta oro har, behin pauso hori eman duenak ez du uzten. Kosta egiten baita”. Batzuk ingurune hurbilenean ahotan hartzen hasten dira euskara. “Zenbaitetik familian ematen dute. Hona datozen askok bikotea edo familia euskaldunak dituzte, edo seme-alabak euskaraz hezi nahi dituzte. Beste batzuei ezagunekin zailagoa suertatu eta nahiago izaten dute dendetan edo beste eremu batean hasi”, Jokinek azaldu digunez.

Harremanak erraztu

Aldaketok askoren bizimodu pertsonalean eragiten dute. “Ezagutu ditugu ikasle batzuk, koadrila ere aldatu dutenak”, Olatzek aipatu digunez. Jokinen esanetan, “Hernani bezalako herri batean bizita, inguruan euskaldun piloa izanda, haiekin harremanetan jartzeko euskara jakiteak plus bat eman eta harremana errazten du. Euskalduna ere erosoago sentiarazten du

eta bera ere integratuagoa sentituko da”.

“Euskarak asko ematen du”

Euskara giro atsegin eta erakargarrian ikasteko aukera dago Buruntzaldean, eta merke asko gainera, lekuan lekuko udalak eskaintzen dituen diru-laguntzei esker. Ehuneko kopuru altuan finantza ditzakete ikasleek, euskara ikasteak eragiten dizkien gastuak.

Honenbestez, gonbita luzatua digute. “Pausoa eman dezatela, zalantzan badaude, zenbat eta lehenago hobe”, adierazi digute Hernaniko Udal Euskaltegitik. “Etor daitezela lasai. Euskarak, hizkuntzaz gain, asko ematen du. Denbora pixka bat eskaini beharko diote, baina trukean jasoko dutena asko da. Animatu!”, luzatu digu gonbita AEK-tik Olatzek. Zuen esku, matrikulazio epea zabalik duzue.

Izen emateko garaia

Eskualdeko Udal Euskaltegiak

■ Hernanikoan:

Matrikulazioa: irailaren 23ra arte.

Ikasturte hasiera: irailak 26.

■ Lasarte-Oriakoan:

Matrikulazioa: irailaren 16ra arte.

Ikasturte hasiera: irailak 19.

Eskaintza: maila guztietako ikastaroak (C2 titulaziorako prestakuntza izan ezik); 10, 6 edo 5 orduko klase asteak, Mintzodromoa, mintzapraktikarako saioak...

Eskualdeko AEK

Matrikulazioa: irailaren 30era arte.

Ikasturte hasiera: urriaren 3a.

Eskaintza: euskara ikasteko aukera maila guztietan, Mintzalagun edo Solaskide egitasmoak, ikastaro zehatzak guraso edo merkatarientzat, urtean zehar tailer edo ekimen bereziak...

Diruz lagunduko zaitu Udalak!

Usurbil
%100



Andoain
%85



Lasarte-Oria
%85



Urnieta
%50-%80



Hernani
%70-%90



Astigarraga
%75



**Eus
ka
ra
ikasi**
Buruntzaldean!

Jo gertuen duzun euskaltegia eta izena eman!

ANDOAIN

Andoaingo AEK
Extremadura 5 Behea
andoain@aeek.eus
943 591 704

LASARTE-ORIA

Muntteri AEK Euskaltegia
Geltoki kalea 17 Behea
943 372 863
lasarte@aeek.eus

HERNANI

Hernaniko AEK
Larramendi 11
943 557 801
607592864
Zilegi eskola: 663043314

USURBIL

Etumeta AEK
Euskaltegia
Kale Nagusia 43, Behea
607 609 379
usurbil@aeek.eus

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEK
Kultur etxea. Nagusia 48.
eta Nabarra Oñatz 3
607610687

Lasarte-Oriako Udal
Euskaltegia
Bekokale bidea, 1
(anbulatorioaren
gainean)
943 36 16 21
euskaltegia@lasarte-oria.eus

Hernaniko Udal
Euskaltegia
Karobieta 63
(anbulatorio zaharra)
euskaltegi@hernani.net
943 331 896



buruntzaldea.eus





**HHI-EPA USURBIL
HELDUEN ESKOLA**

2016-17 MATRIKULAZIOA IREKITA

- GRADUKO IKASKETAK (D.B.H)
- INFORMATIKA IKASTAROAK
- EUSKARA (OINARRIZKOA)
- INGELESA MINTZA PRAKTIKA
- FRANTSESA

ARGIBIDEAK: 943-366608 info@epalasarte.es

**GOLDWELL
ELUMEN**

ileapaindegia

mistoa

**Koloraziotan teknika
berriak eta iraunkorrak**

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951



Klik! batean

So

Euren txokoa galdu zutenetik, ezin asmatu dabilta. Azkenaldian, gainera, ez da aurre-rakuntza handirik sumatzen. Martxa honetan, jubilaria iritsiko zaie. Traza hori hartzen hasi dira, oharkabea.

Argazkia: Ion Markel



Partehartze eskubidea bermatzearen alde

GuraSOSe biziki esker-tu du, igandean Donostiako Cristinaenean ospatu zen Abuztock errebolta baketsuak izandako harrera. “Eskerrik asko etorri zareten guztioi, ikaragarria izan da! Abuztock-en pilatutako indarra guztiok batera aurrera egiteko akuilua izan dadila!”, adierazi du guraso taldeak sare sozialen bidez.

Hitza, dantza, musika, bertsoa... baliatuz, aurpegi ezagun askoren ahotsa entzunarazi zen. Bertaratu ziren guztiena. Erraustegiaren auzian, osasuna lehenetsi eta parte hartze eskubidea bermatzeko aldarrien gunean bihurtu zen, hiriburuko arnasmune nagusietakoa den Egiako parkea. Foru Aldundiak erraustegiaren inguruan ukatutako parte hartze eskubideari erantzuteko



Jendetza batu zen Cristina Enea parkean. Ixabel Agirresarobek girotu zuen haurrentzako gunea. Partehartzea zabala izan zen. Batzuk bideoz, besteak bertan, asko izan ziren euren atxikimendua ematera hurbildu zirenak.

ABUZTOCK

Erraustegiaren auzian, osasuna lehenetsi eta parte hartze eskubidea bermatzeko aldarrien gune bihurtu zen Cristina Enea

antolatu zuten Abuztock.

Ekimen gehiago

Maiatzean jendaurrean aurkeztu zenetik, etenik gabe lanean dabil GuraSOS. Abuztock jaialdiaren ostean, batetik, urrirako mobilizazio erraldoi bat antolatzekoa da guraso tal-

dea. Honez gain, eta aurrerago zehaztasun gehiagoren berri emango duten arren, honatx GuraSOSe aurrera begira iragarri dituen beste 3 ekimen juridikoak: erraustegiaren lizitazioaren kautelazko suspentsioa lortzea; erraustegiaren Ingurumen Baimen Integratua- ren iraungitze edo baliogabetzea lortzea bide administratibotik. Abuztuaren 29an gorako helegitea jarri zutela berri eman dute; eta azkenik, ingurugiro parte-hartze, hondakinen plangintza eta kontratatze gaitako Zuzentarauen ez-betetze larriengatik, kexak zuzenduko dituzte Europako Batzordera.

Laguntza premian

Lan guztiok eragindako gastuei aurre egiteko kontu zenbaki hau zabaldu dute:

ES18 3035 0140 39 1400030208



Joxe Mari Izeta GuraSOSe kideak eman zion hasiera Abuztock jaialdiari. Segidan, Garbiñe Biurrun igo zen oholza gainera. Informazioa jasotzeko eskubideaz gain, erabakitzeko eskubidea ere aldarrikatu zuen. Arratsaldean zehar, ondoko murala osatu zuten Jakoba Errekondok, Axpik eta Joseba Larratxek.



Herritar asko batu ziren GuraSOsek Donostian antolatu zuen ekitaldian. Gastuei aurre egiteko, kontu korronte zenbaki bat ireki dute:
ES18 3035 0140 39 1400030208.



Eñaut Elorrietak, El Drogas-ek, Haimar Zubeldiak edota Joxan Artzek bideo irudien bidez igorri zuten euren atxikimendua. Havoc, Xabi Solano, Jabier Murguza, Petti, Amets Arzallus eta beste hainbat artista zuzenean aritu ziren Cristina Enea parkean. Argazkiak: Aritz Gorriti, Ion Markel, Ibai Arrieta, GuraSOS.

Dominaren bila abiatu da Riora

ABIADURAKO LASTERKETAN ARITUKO DA LARUNBATEAN ETA DOMINA ESKURATZEKO AUKERA ASKO DITU

Atenas 2004 eta Pekin 2008ko Paralinpiar Jokoetan aritu zen. Londres 2012koetara, ordea, ez zuten eraman. Amador Granados txirrindulariaren ibilbidea amaitzear zela zirudien. Temati jarraitu zuen entrenatzen eta duela bi urte bere garaipenik sonatuena erdietsi zuen Mexikon. Abiadurako taldekako lasterketan, munduko txapeldun izan zen. Hein handi batean, Mexikoko garaipenak eraman du Riora. Domina eskuratzeko aukera asko ditu. Irailaren 11n jakingo dugu.

NOAUA! Iritsi da hitzordua. Ondo iritsi al zara Riora?

Amador Granados Alkorta. Oso ondo. Entrenamendu asko egin ditugu. Ondo egin dugu lan eta horrek lasaitasuna ematen dit. Ziklo olinpiko ona osatu dugu eta orain, zain. Ea oraingoan dominarekin etxeratzeko moduan garen.

Jokoetarako sailkatzea ez da inoiz lan erraza izan. Aurrekoetan, azken orduan lortu zenuen txartela. Honakoan, ordea, inoiz baino errazagoa egin al zaizu? Duela bi urte munduko txapeldun izan zinen eta horrek lagunduko zuen, noski.

Konplikatuagoa izan dela esango nuke. Baina bada aldea: honakoan nire merituengatik lortu dut Jokoetarako txartela. Atenas eta Pekingo Jokoetara gonbidapen bidez sailkatu nintzen. Horrelakoak azken orduan jakinarazi ohi dira. Honakoan ordea, nik neuk irabazi dut partehartzeko eskubidea. Horrek segurtasuna eta lasaitasuna eman dit.

Baina hala ere, gogorra izan da. Duela bi urte Munduko Txapelketa eskuratu genuen,



2014ko Munduko Txapelketan urrezko domina eskuratu zuen, abiadura olinpikoan. Proba horretan, Rioko Paralinpiar Jokoetako faboritoen artean dira Amador eta bere taldekideak. Argazkia: Carlos Jimenez Goya.

AMADOR GRANADOS

“Domina eskuratzeko sasoian gaude. Baina noski, dominak ez dira entrenamenduetan irabazten. Rion eman beharko dugu gure onena”

baina hala ere delegazio barruan beste bi test pasa behar izan ditugu.

Zuek abiaduran nahi duzue irabazi. Baina zuen delegazioan izango da kilometrokoari edo errepidekoari lehentasuna emango dion txirrindularirik. Zer nolako giroa duzue?

Ona. Txirrindulari guztiek nahi dute irabazi. Bada kategoria ezberdinetan ari denik, eta horrek lehia eragiten du. Baina ondo moldatzen gara. Honakoan, entrenatzaileak

gure probaren aldeko apustua egin du eta oso pozik nago. Horri esker, Palman egon gara bi astez elkarrekin entrenatzen eta maila onean aritu gara. Domina eskuratzeko sasoian gaude. Baina noski, dominak ez dira entrenamenduetan irabazten. Rion eman beharko dugu gure onena.

Abiadura olinpikoa da begiz jota duzun lasterketa. Baina hiru lasterketa ezberdinetan hartu beharko duzu parte. Nolatan?

Espainiako delegazioa zortzi txirrindularik bakarrik osatzen dugu (Munduko Txapelketan, gutxienez 14 lagunek ordezkatzzen dute herrialde bakoitza). Abiadura olinpikoan bakarrik aterako bagina, errepideko zein kilometroko lasterketak partehartzaile gabe gera zitezkeen. Horregatik txirrindu-

lariok lasterketa ezberdinetan partehartzeko agindua dugu.

Abiadurako proba du begiz jota

NOAUA! Irailaren 11n jakituko da zure proba gustukoe-na. Dena den, bezperan, kilometroko lasterketa osatu beharko duzu. Hori ez al da kaltegarria izango zuretzat? Amador Granados Alkorta. Egia esan, abiadurako probaren bezperan lasai egon nahiko nuke. Baina behartuta nagoenez, kilometroko proban hartuko dut parte. Dena den, biharamunean, abiadurakoan emango dut nire onena. Eta azken proban (irailaren 16an errepideko lasterketan), taldekideak laguntzea izango da nire betebeharrak.

“Entrenamenduetan denbora onak egin ditugu, Munduko Txapelketan baino hobeak”



Alfonso Cabello eta Eduardo Santasekin irabazi zuen Munduko Txapelketa duela bi urte. Hirukote bera arituko da larunbat honetan Rion, abiadura olinpikoko lasterketan. Argazkia: Carlos Jimenez Goya.

NOAUA! Aurkarien berri ba al duzue?

Amador Granados Alkorta. Zaila da jakitea. Txapelketarik ez delako egon. Britainia Handiko selekzioak ez du Munduko Txapelketako talde berbera izango, kide bat kategoriaz aldatu dutelako. Errusiako taldea Jokoetatik kanpo utzi dute. Beraz, beste behin ere, Txina izango da aurkari gogorrena.

Faboritoen artean zaudete, hortaz.

Ikusiko dugu. Entrenamenduetan denbora onak egin ditugu. Mexikoko Munduko Txapelketan baino hobeak. Baina besteek ere gogor entrenatuko zuten. Ezin da aurretik ezer aurreikusi.

Abiadura olinpikoan, taldekako lasterketan nagusitu zirenetan orain bi urte Mexikon.

AMADOR GRANADOS

“Britainia Handiko selekzioak ez du Munduko Txapelketako talde berbera izango, kide bat kategoriaz aldatu dutelako. Eta Errusiako taldea Jokoetatik kanpo utzi dute. Beraz, beste behin ere, Txina izango da aurkari gogorrena”

Joko hauetan taldekide berdinekin arituko zara, ezta?

Munduko Txapelketa irabazi genuen berberak arituko gara: Alfonso Cabello, Eduardo Santas eta ni neu. Ordutik hona, berregokitu egin dugu taldea. Duela bi urte bigarren erreleboa egiten nuen, eta Rion lehenengo osatuko dut.

Belodromotik belodromora alde egoten da. Riokoaren berri ba al duzue?

Hezetasun handia dago eta horrek eragina izan dezake. Horregatik egon gara egunotan Palman entrenatzen. Antzeko baldintzak topatuko ditugulako Brasilen.

“Lehiakorra izateari uzten diodanean erabakiko dut”

49 urte bete dituzu. Riokoa izango al da zure azken lasterketa?

Duela urte batzuk pentsaezina egiten zitzaidan, baina honaino iritsi naiz. Oraintxe bertan, Rioko Paralinpiar Jokoetan daukat burua. Hortik aurrera, ikusiko da zer gertatzen den. Lehiakorra izateari uzten diodanean erabakiko dut. Gero geroakoak.

Hiru lasterketa, sei eguneko epean

2014ko Munduko Txapelketan nagusitu zen taldekideekin batera arituko da abiadurako lasterketan. Rion hortaz, Amador Granadosen Alfonso Cabello eta Eduardo Santas izango ditu bidelagun. Irailaren 11n jokatu da taldekako abiadurako lasterketa. Baina beste bi probatan ere arituko da Usurbilgo txirrindularia: irailaren 10ean kilometroko proba osatuko du eta irailaren 16an errepidoko lasterketan irtengo da.

Irailak 10 larunbata

■ Kilometroko lasterketa (banaka). 16:00etan.

Irailak 11 igandea

■ Abiadura olinpikoa (taldeka).

■ Kanporaketak, 10:00etatik aurrera.

■ Finala, 13:00ean.

Irailak 16 ostirala

■ Errepideko lasterketa. 21:30ean.

* Brasilgo orduak.



Ilusio handiarekin abiatu da Riora. Argazkia. Carlos Jimenez Goya.

Gailurretako bakean, hartu zuen bidea

Tiburtxio Arrutiren heriotzak samin handia eragin zuen herritar askoren artean. Azkenaldian lan handia egiten ari zen Gurea Pakea Jubilatuen Elkartean. Haren izenean hartzen zuen parte Santixabel festetako jai batzordean. Eta batzordekide izandakoek, hain zuzen, bertso hau osatu dute bere omenez.

TIBURTXIORI

Lagun bat bagenuen,
izpirituz gaztea,
Santixabel Batzordean,
gazte ta heldu artean,
guztiontzat maitea.
Mendia maite zuen,
maite zuen mendia.
Eta ostegun batean,
gailurretako bakean,
hartu zuen bidia.
Non hago, zer larretan,
Usurbilgo laguna,
mendi hegaletan gora,
oroitzapen den gerora,
ametsetan joan haizena?

("Xalbadorren heriotza"ren doinua)

Santixabeletako Jai Batzordea



Uztailaren 21ean, mendi-istripuan zendu zen Tiburtxio Arruti.

Dantzarien dizdira gailendu zen San Esteban egunean

Aurtengoan, egun handiarekin hasi ziren festak Urdaia partean. Meza ondoren, paxientxiak eta ardo goxoa banatu zituzten San Esteban ermitaren plazatxoan. Eguraldi atseginak jende asko erakarri zuen. Segidan, Orbeldi Dantza Taldeko kideek ikuskizun ederra eskaini zuten.



Kontxako giza katera, Zubietatik autobusean

Igande honetan, Donostiako estropaden atarian, giza-katea antolatu dute. Errausketaren aurkako Zubietako Taldeak joaneko autobusa antolatu duela jakinarazi nahi du. "Bus geltokitik 10:45ean abiatuko da", emailaz aditzera eman digutenez.

Datorren astean, Santueneko jaiak

Irailak 16, ostirala

17:00 Txupinazoa txosna aurrean eta txokolatada.

Ondoren, globo gerra.

18:30 Buruhandiak eta Batukada edo elektrotxaranga.

19:00 Sardina jana.

23:30 Kontzertuak: Zapparra, Los Zopilotes Txirrius, eta Gaitzerdi Erromeria.

Irailak 17, larunbata

11:00 Haur jolasak eta pintura lehiaketa.

13:00 Buruhandiak.

14:00 Haur bazkaria. (Norberak bere bazkaria ekarri, eta edariak eta postrea bertan banatuko dira).

16:00 Mus txapelketa (15:30-16:00 izen ematea).

16:00 Haurrentzako puzgariak.

17:30 Txokolatada.

19:00 Buruhandiak.

20:30 Kantu Afaria.

00:00 Dantzaldia DJ Aros-ek girotua.

Irailak 18, igandea

11:00 Toka txapelketa.

12:00 Hamaiketako txosnan.

14:00 Herri bazkaria.

17:00 Gorritiren showa.

Ondoren, buruhandiak.

19:30 Piper dastaketa.

21:00 Festen amaierako traka. Antolatzailea: Santueneko Jai Batzordea.

Einean Guraso Eskola, martxan

Irailaren 15a baino lehen eman daiteke izena, ikasurte honetarako antolatu dituzten ikastaroetan. Usurbildar guztiei zuzenduak dauden saio hauek apuntatu edo argibide gehiago jasotzeko, irakasleekin hartuemanetan jarri behar da. Honatx ikastaro eskaintza:

Laboreak

- Noiz: astean behin 2 ordu.
- Iraupena: urria-ekaina.
- Irakaslea: 609 41 38 83 (Juan).
- Bolilloak, punto cruz, gantxilloa...

Yoga

- Noiz: astean behin 1,5 ordu.
- Iraupena: urria-ekaina.
- Irakaslea: 636 71 15 14 (Katia) / 605 72 28 25 (Sebas).
- Luzaketak, arnasketak, lasaitzea...

Pintura

- Noiz: astean behin 2 ordu.



Ikastaro ugari antolatu ditu Einean Guraso Eskolak. Kontuan izan irailaren 15a baino lehen eman behar dela izena.

- Iraupena: urria-ekaina.
- Irakaslea: 609 41 38 83 (Susana).
- Oleoa, akuarela, pastela...

Eskulanak

- Noiz: astean behin 2 ordu.
- Iraupena: urria-ekaina.
- Irakaslea: 609 41 38 83 (Susana).
- Teknika ezberdinak ikasi gauza politak sortzeko edo berritzeko.

Masajea

- Noiz: astean behin 2 ordu.
- Iraupena: urria-ekaina.
- Irakaslea: 605 72 28 25 (Sebas).

Sabel dantza/ Hip Hop

- Noiz: astean behin 1,5 ordu.
- Iraupena: urria-ekaina.
- Irakaslea: 637 25 68 51 (Uarda).
- Bi dantza hauek ikasteko aukera.

Helduen Hezkuntza Iraunkorra

18 urtetik gorako herritarrei zuzendutako doako hezkuntza eskaintzan matrikulatzeko aukera duzue asteotan; irailaren 8tik 16ra, araututako ikastaroetan, atzeritarrentzako gaztelania ikastaroan eta Zikloetako Sarbidean. Eta irailaren 12tik 16ra, ikastaro guztietan eta baita arautu gabekoetan ere.

Aipatu ikastaroen artean dira, gaztelania, frantsesa, ingelesa, informatika, artea, literatur tertuliak, nutrizioa... Informazio gehiago: epalasarte.es 943 376 443 info@epalasarte.es



Agerialden dago EParen egoitza.

Izen ematea Orbeldi Dantza Taldean

Urriaren 3an abiatuko duten ikasturte berriarako izen emateko epea ireki du Orbeldi Dantza Taldeak. Honatx inskripzioari eta ikasturte berriko eskaintzari dagozkion zehaztasunen berri:

- Izen emateko jendaurreko hitzorduak: irailak 8, 15 eta 16.

- Ordutegia: 17:30-19:30.
- Tokia: Oiardo Kiroldegia.
- Izen emateko beste bidea eta informazio gehiagorako: orbeldi.udt@gmail.com

Eskaintza:

- Haurren dantza taldea. Asteazkenean. Ordutegia adosteko bilera irailaren 23an 18:30ean, Oiardo Kiroldegi-

ko egoitzan. Urteko kuota: 70 euro (anai-arreben kasuan, bakoitzak 60 euro). Kuotaren ordainketa, azaroan.

- Helduentzako eskaintza: erromeria dantzak (asteazkenean 19:30-21:00 artean), euskal dantzetan oinarritutako koreografiak (astelehenetan, 19:30-21:00 artean), euskal dantza tradizionalak (izen

emandakoen artean zehaztuko da ordutegia). Urteko kuota: 75 euro (familiako bat baino gehiago egonez gero, bakoitzak 65 euro). Kuota ordainketa, azaroan.

- Ikasturte hasiera: urriaren 3an.

Deitzailea: Orbeldi Dantza Taldea.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL



ANORGA TXIBI S.L.

KRISTALDEGIA

·komertzial instalazioak ·beira bikoitza
·segurtasun beirak ·dutxa-itxurak eta irristailuak
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Usurbil Cup, herri ekimen jendetsuenetakoa



“Usurbil Cup ez da lehiarako txapelketa bat, ondo pasatzeko lagun arteko ekimena baizik”.

Herri ekimen jendetsuenetakoa izango dugu Usurbilen. Jokalari guzti guztiak ez zeuden, jendea falta zen, eta halere zenbatzen hasi irudiotan dagoen lagun kopurua; LHtik hasi eta DBHra, gaztetxo mordoa. Guztiek izena emana dute Usurbil Cup ekimenean.

Irailaren 2an abiatu zen Usurbil F.T.-k antolaturiko txapelketa, Haranen egin zuten hasiera ekitaldi handi eta koloretsuarekin. Taldeak aurkeztu eta guztiekin batera argazki handia atera zuten, lehen neurketak jokatu aurretik. Asteotan

USURBIL CUP

“Asteotan futbol neurketa ugari jokatuko dituzte 34 bat taldeetan banaturiko 400 bat gaztetxok”

futbol neurketa ugari jokatu dituzte 34 bat taldeetan banaturiko 400 bat gaztetxok, sari banaketa handia baino lehen. Antolakuntzak aurtan ere jarriera desegokiak alboratzen eragin nahi dute. Nabarmen-tzen dutenez, Usurbil Cup ez da lehiarako txapelketa bat, ondo pasatzeko lagun arteko ekimena baizik.

Nesken futbol taldeak osatzeko deialdia

Horretarako bilera deitu du Usurbil F.T.-k ostegun arratsalde honetan, 19:00etan Haranen. “Kadeetatik hasita, jubenil edo erregional mailako nesken taldea osatzeko deialdia egin nahi dugu”, adierazi diote aldizkari honi futbol taldeen bilguneetik. Bestalde, kadete mutilen taldea osatzeko jokalaria bila dabilta. Izen emateko epea zabalik egongo da irailaren 15era arte. “Apuntatu nahi izanez gero, Haranera gerturatu daitezke”, ohartarazi dute Usurbil F.T.-tik.

Kontxako Bandera eskuratzeko lehen postuetan

Emaitza ezinhobeak eskuratu zituzten usurbildarrek igandean ospatu zen Kontxako Banderaren lehen jardunaldian. Sarai Lizaso Mitxelena eta San Juan emakumezkoen txapelketako lehen postuan ditugu, laugarrenean Nagore Arruti Urkiola eta Zarautz-Getaria. Gizonezkoen

txapelketan, Alex Udabe Pagola eta Hondarribia, bigarren postuan. Batzuen eta besteen artean dagoen aldea, txikia da benetan. Lehia bizia izango da beraz igande honetan, irailaren 11n Donostian; goizeko 11:00etan emakumezkoen estropaden saioa ospatuko da. 12:00etan gizonezkoena.

Tren zerbitzu bereziak

Datorren igandean ere, irailak 11, Kontxako Bandera ikustera joateko tren zerbitzu bereziak eskainiko ditu EuskoTrenek.

Informazio gehiago:

euskotren.eus
902 543 210
@euskotrenEJGV



Superkopako txapeldunak, seigarrenez

Espainiako seigarren Superkopa irabazi du Bera Bera eskubaloit taldeak. Jokalari txapeldunen artean usurbildar bat dugu; Esther Arrojeria. Zorionak! 32-21 irabazi zieten Barakaldoko Zuazo taldeari larunbatean. Honekin, taldeak eskuratzen duen 15. titulua dugu. Taldetik berri eman dutenez, lehenengo zati gorabeheratsuen ostean, bigarrenari esker irabazi zuten hein handi batean, asteburuan Iruñeako Anaitasunan jokatu zen neurketa garrantzitsu hau.

Hasi da Endika Abril Errebote Txapelketa

Lehen faseko lehen neurketak aurreko igandean jokatu ziren. Asteburu honetan norgehiagoka gehiago. Partidetako bat, irailaren 11n, goizeko 11:00etan hasita Zubietako Errebote Plazan. Endaiarrak eta Luzean lehiatuko dira. Zubietarrek ere txapelketa honetan parte hartuko dute, aldaketarik ez bada, irailaren 18an, etxean gainera; 11:00etan hasita Zubietan, Senperekoen aurka.



Igande honetan, Endaiarrak eta Luzean taldeak arituko dira Zubietako Errebote Plazan. 11:00etan hasiko da partida.

9. Baxurde Krosserako izen ematea zabalik

Kirolprobak.com atarian sartuta bideratu dezakezue inskripzioa, irailaren 17ko eguerdiko 12:00ak arteko epea duzue. Prezioa: 10 euro txip horiarekin, 12 euro txip zuriarekin. 300 lasterkarirentzako lekua egongo da irailaren 18an, 10:30etan frontoian abiatu eta amaituko den proba herrikoian. Bi lasterketa dituzue aukeran; 10,75 eta 5,2 kilometrotako ibilbide bana. Baxurde Kross Txikia ere ospatuko da haurrekin. Amaieran sari banaketa, opari ematea, eta zozketak. Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldea ari da antolatzen lasterketa.



Beste behin ere, bi lasterketa dituzue aukeran; 10,75 edo 5,2 kilometrotakoa.

Kirola egiteko nahi adina jarduera

Oiardo Kiroldegia 2016-17 ikasturterako eskaintza zabala prestatu du.

Aretoko jardueren artean jumping, body balance, pilates, zumba, spinning, 3. adina, aerobik.

Eta uretako jarduerak; haurtxoentzako saioak, ur ludoteka, Igeriketa Eskola, uretan moldatzea 3-8 urte artekoentzat, Igeriketa Gidatua, haurdunen igeriketa, Igeri Hastapena, hobekuntza, triatloiko igeriketa...

Ikastaro guztiok ordutegi ezberdinetan eskainiko dituzte.



Informazio zehatzagoa Kiroldegian, edo 943 372 498 telefono zenbakian.

Prezioen eta gainerako argibideen berri, Kiroldegian bertan

edo 943 372 498 telefono zenbakian jaso dezakezue.

Pirinioetara asteburupasa

Ordasara doaz asteburuan Usurbilgo mendizaleak. Andatza M.K.T.-k antolaturiko txangoan, Monte Perdido eta Faja Racun mendietara igoko dira. Gorizeko aterpean eta Torlako Refugio Lucien Brienten ostatua hartuko dute. Plazak beteta daude, izen ematea udaberrian bideratu zuten.

Aginagako Txapelketa, azken zortzirenak

Irailak 7 asteazkena

Arratsaldeko 19:00etan:

Azpiroz-Etxeberria

Loidi-Gurutzealde

Irailak 10 larunbata

Eguerdiko 11:00etan:

Urbietako Iruretagoiena

Orbegozo-Oliden

Maiz-Esnaola

Taberna-Mitxelena

Judo taldean ere, izen ematea martxan

Larunbatetik, irailaren 10etik aurrera bideratu ahalko da inskripzioa Oiardo Kiroldegian. 5-7, 8-12 eta 12-14 urte artekoentzako ikastaroak eskainiko dituzte. Baita helduentzako judoa ere. "Irailen izena ematen duen ororentzat judogia oparitan", berri eman dute Usurbil Judo Klubetik. Taldea sarean, helbide honetan aurki dezakezue: jcusurbil.com

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ETXETRESNEN KONPONKETAK
azkar, prezio onean MARKA GUZTIAK
20 URTEKO ESPERIENTZIA
645417665
XABIER
Usurbil

ETXEBIZITZA

Salgai

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 eta 56) eta garajea 50m² eta terraza 9m². Igogailua, fatxada berriua. Oso argitsua, bista onak. 679002101

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoalde-
ra. 605 707 642.

78m² pisua Atxegaldan. 4 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, balkoi luzea, trasteroa. Igogailua. Eguzkitsua. 215.000 euro. 656742207

Etxebizitza salgai Santuenea 21ean. 69 m². Sukalde jangela, komuna, egongela eta bi logela. Hiriko gasa. Eguzkitsua. Prezio berria: 138.000 euro. Ramón 615149900

BOE-ko 79m² etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpokalde-
ra, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiajan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m². Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, eskilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Alokairuan

Etxe bat alokatzen da Santuenean. 679 366 415.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Pisu bat alokairuan Atxegaldan. 3 logela, egongela, 2 komun, sukaldea eta terraza. 637 309 209.

Etxebizitza Santu Enea 21ean. 69 m². Sukalde jangela, komuna, egongela eta bi logela. Hiriko gasa. Eguzkitsua. Prezioa 550 euro. Ramón 615149900.

Etxe bat Etxealdian. 3 logela, sukalde-jangela, 2 balkoi eta dena kanpora. 626 867 493.

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel: 620 708 265 / 686 143 7866.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Suzuki Vitara salgai. Diesela. 1998. urtekoa. Korrea aldatu berria. 630 490 844.

Garaje itxia alokatzen dut, 20 metro koadro, Kale Nagusia 22-an. 618860270

Garaje bat saltzen dut Erdiko-kalea, 10 zenbakian. 2 kotxerentzat. 60.000 euro. 699 720 940

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Moto-rra uztoko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadokoak Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Emakume bat behar da astean hiru egunetan: bazkaria eta garbitasuna egiteko. Tel. 609 403 081.

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrer altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsalde, irailetik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzako lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo ospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila nabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila nabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketa lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsua bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etxez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluarekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila nabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketara. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila nabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak



Cumbres eta Benitez, zorionak! 50. ezkontza urteurrenean. Zuen seme, iloba eta errainen partez zorionak!



Zorionak June eta Areia! Muxu potolo potoloak biontzat amona Prexenen partez!

Heriotzak

Angel Delgado Melchor

76 urterekin hil zen irailaren 3an



Juan Francisco Galvez Palomares

78 urterekin hil zen abuztuaren 4an



Heriotzak

Tiburtxio Arruti Izeta

69 urterekin hil zen uztailaren 21ean



Maria Lourdes Astigarraga

61 urterekin hil zen uztailaren 23an



zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrak zain-tzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Lan bila nabil. Portalak edo etxeak garbitzen, umeak zaintzen... Tel. 688 889 214.

Erizain laguntzaile nazionala eskaintzen da. Tituluekin eta esperientziarekin edozein lanetan. Batez ere pertsona helduak zaintzen. Tel. 622 925 562.

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketarik egiteko. Tel. 620 625 823.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jabetxeren batean harraskako garbiketarik egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldetan, garbiketetan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan

edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel. 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketan, plantxatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduek edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoi-tzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

BESTELAKOAK

Puntuzko txaketa beltza galdu zen uztailaren amaieran, anbulategi erdigune inguruan. NOAUA!ra ekarri mesedez.

Abuztuan Usurbilgo Udaltzain-gora haurrentzako botika eta higienarako produktuz betetako laranja koloreko nezaser edo botikin bat entregatu dute. Galdu duenak Udaltzaingoa galde dezala.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Egoera onean dagoen flauta trabesera bat erosiko nuke, edo urtebetez alokatu. 645 737 925.

Maiatzaren 26an, 17:00ak alde-
ra Oiardo Kiroldegian Golf gris auto bati kolpe txiki bat eman

nion. Ohar bat utzi nion. Zurea bada jarri nirekin kontaktuan; 635 71 35 97.

Katuak oparitzen ditugu Donostia elkartean. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro pol-
lar bat galdu da. Aurkitu baduzu
deitu 678 084 020.

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztailako bigarren hamabostaldian, uztailaren 17tik 31ra. Aste bakarrerako edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontaktua: 699 609 058.

Artzai txakur bat oparituko nuke. Baserri edo pabeloia zaintzeko ona da. Bost urte ditu eta beltza da. Txerto eta mikro-txipa jarrita ditu. 943 365 228 / 660 093 071.

Landatan La mer kanpinean mobil home bat saltzen da. 656 791 676.

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Legorretako babarruna salgai. 10 eurotan kiloa. 657 714 355

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagun-
duko dizut. Ordubeteko ibilbi-
deak. Asteburutan. 688 888 176. Pablo.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehe-
netik ostiralera: 10:15-13:00 /
16:00-19:00 artean. Jai egunak
ez diren larunbatetan: 9:00-
13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarta Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 08	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Ostirala 09	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Larunbata 10	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea 11	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Astelehena 12	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteartea 13	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Asteazkena 14	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte

Irailak 08 - irailak 18

Osteguna 15	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte
Ostirala 16	GIL Kale Nagusia 24. Lasarte
Larunbata 17	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte
Igandea 18	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA YURREBASO, MAITANE
Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani
943 55 77 38 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda iraila

09 ostirala

■ **Larraitz Ugartemendiaren erakusketa** Artzabalen.

10 larunbata

■ **Sagarrondotik Sagardora** ikastaroa. 9:00etan Potxoenean. Bideratzaileak: Aitor Etxeandia eta Egoitz Zapiain.

■ **Larraitz Ugartemendiaren erakusketa** Artzabalen.

11 igandea

■ **Endika Abril Errebote Txapelketa.** Endaiarrak-Luzean. 11:00etan Zubietan.

■ **Erraustegiaren aurkako giza-katea.** 11:30ean Donostiako Alderdi Ederren. Zubietatik autobusa, 10:45ean bus geltokian.

Larraitz Ugartemendiaren margolanak, Artzabalen ikusgai

Larraitz Ugartemendiaren “Paisaia eta gorputza” margolan erakusketa bisita dezakezue Artzabalen urriaren 15era arte.

“Koadroak figuratiboak dira, eta 50. hamarkadako kaleak eta garai hartako emakume ederrak ageri dira islatuta horretan. Mihise gaineko olio teknika eta pintzelkada askeak darabiltza, formatu handi nahiz txikian. Han sepia eta kolore biziak kontrajarririk agertzen dira, iragana eta emakumearen irudia aurrez aurre jarrita”.



Irailaren 15era arte egongo da erakusketa zabalik.

Muxurbil Antzerki Taldea, larunbat honetan bilera

Muxurbil Antzerki Taldea ere ikasturte berriari ekiteko gogoz da. Larunbat honetan, irailak 10, Sutegin elkartuko dira. Eguerdiko 11:00etan batuko dira. Iaz taldean aritu ziren guztiei zuzendua dago deialdi hau eta baten bat ere animatuko balitz, Muxurbil taldekoek gogo onez hartuko dute. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak hemen du telefono zenbaki bat eskura: 657 71 23 83.

Sagarrondotik Sagardora ikastaroaren azken saioa

Alkartasuna Kooperatibak antolatu duen ikastaro zikloaren baitan, azken saioa antolatua dute larunbat honetarako, irailaren 10erako, 09:00-13:00 artean Potxoenean. “Sagarraren heldutasun analisiak eta etxean sagardoa egiteko hastapenak” saioa, Aitor Etxeandiak eta Egoitz Zapiainek bideratua. Informazio gehiagorako eta izen emateko: 943 361 114/ alkartasuna@usurbil.com / alkartasuna.eus

Datozenak

Kantu Taldearen entseguak

Astearteroko entseguei irailaren 20an ekingo diete. Ohi bezala, 18:30-19:30 artean Udarregi Ikastolako kantu gelan bilduko dira. Hurrengo kantu-jira berriz, irailaren 24an 19:00etan, Mikel Laboa plazatik abiatuta.

KzGunea, iraileko eskaintza

Ikastarook programatu dituzte asteotaroko:

■ Irailak 19-30, 09:00-11:00: “Ofimati-ka tresnak-Libre Office”.

■ Urriak 3-14, 16:00-18:00: “Komunikatu zaitez Sare Sozialen bitartez”.

■ Urriak 17-28, 16:00-18:00: “Ofimati-ka tresnak-Libre Office”.

■ Informazio gehiagorako: 943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

Kale Nagusia, 37 (irailean 09:00-13:00 artean zabalik).

Carod-Rovira, Sutegin

Josep-Lluís Carod-Rovira Sutegin izango da urriaren 1ean, goizeko 10:00etan Sutegin. Hala dio udal kultur agendak. Hitzaldia eskainiko du, eta, “ondoren, euskal bidearen inguruko mahai ingurua izango da”.

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfn. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ELORZA
OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

IREKIERA BERRIA!



guria
taberna

ARDI BELTZ ZANA BERRITU DUGU
ORAIN GURIA TABERNA DA ETA
GUZTIOK GONBIDATUTA ZAUDETE
IRAILAREN 14EAN 19:00-21:00

KMDN
hizkuntzak

English courses
CONGRATULATIONS!

Alazne Irazabalbeitia Fariña
Andoni Arzallus Sagardia
Iñigo arzallus Sagardia
Irene Etxabe Iarreta
Julen Alzas Hernandez
Aitor Arzallus Sagardia
Eneko Irazabalbeitia Fariña

Matrikulazio epea zabalik 14arte!
12:00-13:00 eta 18:00-20:00
www.kamdenhizkuntzak.com
Zubiaurrenea 6 • Tlf 943 371 402

BIDAIA TALDEAN
Irteera Lasarte-Oriatik

ARGENTINA



iparretik hegora · AURREIKUSITAKO IRTEERA 2017/01/30



Erreserbak eta informazioa bulegoan

 **NOAOA BIDAIAK**
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea, 10
20160 Lasarte Oria, Gipuzkoa
T. 943 373 613
info@noaoabidaia.com
www.noaoabidaia.com

ARRAUN-JARDUERAK ORIA IBAIAN



Begiraleekin antolatutako jarduerak

ONTZIEKIN ALORRA UD URTE OSOAN ZEHAR

Usurbilgo Txokoalde auzotik Orioraino, 2,5 orduko jaitsiera kaiakera.

ArraunPote
Trenburo
Auzotik

657794677
info@begi-bistan.com

Produktu fitosanitarioen erabiltzaile txartela lortzeko ikastaroa



Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatibak eta Hazi Landa eta itsas ingurunearen garapenerako Eusko Jaurlaritzaren Korporazioak, zenbait **produktu fitosanitario erosi eta erabili** ahal izateko **derrigorrezkoak diren txartelak** lortzeko ondorengo ikastaroak antolatu dituzte.



PROFESIONALEI ZUZENDUTAKO IKASTAROA:
(Nekazaritza-ustiategi txartela duena edo bere lanean produktu fitosanitarioak erabiltzen dituenak)

Usurbilen, irailaren 26,27,28,29 eta urrian 3 eta 4ean izango da.

Izen-ematea/ informazioa: Fraisoro Eskola
Tel: 943692166 /email: fpefraisoro@hazi.eus

Lanerako Prestakuntza formaziorako informazio gehiago www.hazi.eus

OINARRIZKO TXARTELA LORTZEKO IKASTAROA:
Usurbilen, irailaren 19tik 23ra.

**IKASTARO HONETARAKO AURRETIK IZENA EMAN DUZUENOK
DEITU KOOPERATIBARA ZUEN DATUAK EMATEKO!**

25 orduko ikastaroa da, eta goizeko ala arratsaldeko ikastaroan izena eman dezakezu.

Izen-ematea/ informazioa: Alkartasuna Kooperatiba
Tel: 943361114 /email: alkartasuna@usurbil.com